

# CCOO zurekin

**Erasoen aurrean**



**Lan-indarkeriarik gabeko lan-inguruneak**



# Gatazka erakunde sanitarioetan eta soziosanitarioetan

---

## Gatazka

Osasunean kalte egiten duten erantzun emozional bortitzak dakartza. Gatazka horiek larritzeak jokabide desegokiak ekartzen ditu, eta hori lan-indarkeriako egoerak sortzeko faktore bat da.

## Jokabide desegokiak

Lan-harremanean, ekintza eta jokaera iraingarriak, umiliagarriak eta tratu duinerako eskubidea urratzen dutenak dira.

## Honelakoak izaten dira

Ahozko abusuak, beldurra eragitea, MEHATXUAK, umiliazioak eta indarkeria fisikoa, baita nahi ez den arreta sexuala edo sexuagatiko bazterkeria ere.

**MEHATXUAK**, mehatxua jaso duenaren aurkakoak izaten dira, baina haren familiaren edo hurbilekoen aurkakoak ere bai, mehatxatuari ezinegona edo beldurra eragiteko.

## Sexu-jazarpena

Nahi ez den edozein jokabide sexual, pertsonaren duintasuna urratzen duena, behin bakarrik gertatu bada ere.

## Sexuagatiko jazarpena

Sexuarekin edo generoarekin lotutako edozein jokabide, xede duena pertsonaren duintasuna urratzea eta ingurune beldurgarria, lazgarria, laidogarria, umiliagarria edo iraingarria sortzea.



# ZER ARRISKU-FAKTOREK HANDITU DEZAKETE LANEAN INDARKERIARAKO AUKERA?

## **Itxaropen handia**

Pazienteek eta haien senideek itxaropen handia dute arreta medikoaren inguruan, eta horrek frustrazioa eta tentsioa sor ditzake, itxaropena bete ezean.

## **Itxaronaldi luzeak**

Pazienteek luzaroan itxaron behar izateak handitu egin dezake langileen aurkako oldarkortasuna.

## **Larrialdietako arreta**

Larrialdietako unitateetan, zainketa intentsiboen unitateetan eta unitate psikiatrikoetan bereziki egoera zailak gertatzen dira, eta indarkeriazkoak izan daitezkeenak.

## **Jokabide-nahasmenduak**

Jokabide-nahasmenduak dituzten pazienteek jokaera iragarrezinak izan ditzakete, lan-indarkeriaren arriskua handitzen dutenak.

## **Substantzien gehiegizko kontsumoa**

Substantzia toxikoen edo alkoholaren eraginpean dauden pazienteak egoteak handitu egin dezake indarkeriazko jokaerak egoteko aukera.

## **Langile- eta baliabide-falta**

Langileen eta baliabide materialen faltak lan-karga eta estresa handitu ditzake, eta, horrek, gatazka-egoerak eragin.



**CCOD**

# FSS-CCOOK honako hau eskatzen du:

---

Zentro eta zerbitzu sanitarioetako eta soziosanitarioetako langileen kontrako indarkeriazko edozein ekintza aintzat hartzea, administrazioaren ikuspegitik disuasio-neurritzat jo beharra dago.

## Erakundeen arteko elkarlana

Eskualdeko institutuen, ordezkaritza handieneko sindikatuen eta prebentzioan eta bitartekaritzan aritzen diren bestelako erakunde batzuen arteko lankidetzak, lan-indarkeriaren arazoa osorik jorratzeko.

## Negoiazio kolektiboa

Negoiazio kolektiboko akordioetan indarkeria prebenitzearekin lotutako klausulak txertatzea, lantokiko segurtasuna eta gehiegizko lan-karga landu ahal izateko, besteak beste. 190 OIT Erabakia.

**Osasun Sistema Nazionaleko profesionalen eta eremu sanitario eta soziosanitarioko gainerako profesionalen aurkako erasoen behatokiak sortzea.**

# FSS-CCOOK honako hau proposatzen du:

---

## Gatazkak jorratzea

Gatazkak, haien kausak eta artaren kalitatean duten eraginak jorratzea, eta irtenbide eraginkorrak ematea.

Gatazkak kudeatzeko protokolo bat, lanpostu bakoitzean jokabide oldarkorrak jasanez gero egin beharrekoaren prozedura jasoko duena, egiaz eta ez forma hutsez ezartzeak lagundu egin dezake tentsioa apaltzen, komunikazioa hobetzen eta lan-ingurune osasungarriagoa sortzen, eta, hortaz, artaren kalitatea hobetzen.



**CCOO**

## **Kontzientzia eta prestakuntza sustatzea**

Kontzientzia eta prestakuntza sustatzea: Langileen artean laneko indarkeria-arriskuei buruzko kontzientzia sustatzea eta prestakuntza ematea indarkeria-egoerak identifikatzeko eta horiei erantzuteko.

## **Biktimei babesa ematea**

Babesa eta aholkularitza ematea lan-indarkeria jasan duten biktimei, lege-baliabideetarako eta buruko osasunerako baliabideetarako irispidea barne. Erakundea/enpresa erasoaren kontrako prozesura bertaratzea. BIKTIMENTZAKO ORDAINA bilatzea.

## **Ikerketa eta salaketa**

Laneko indarkeria-gertakariak iker daitezen sustatzea eta bermatzea biktimak eroso sentitzen direla horrelakoak salatzean, eta salaketa lantokian bertan egin daitekeela.

## **Sentsibilizazio-kanpainak**

Kontzientziazio-kanpainak antolatzea lan-indarkeriaren eta haren ondorioen inguruan langileak eta gizarte osoa hezteko.

## **Politika publikoak defendatzea**

Lan-indarkeriaren prebentzioa, biktimen babesa eta haien aitortza soziala sustatzeko politika publikoen alde egitea.

## **Langileei babesa ematea**

Babesa ematea osasun-langileei estresa eta lan-zama maneiatzeko. Babes psikologikoko programa onuragarriak egiten jarraitzea.

**INFORMATU ERASOEN AURKAKO ZURE ZENTROKO PROTOKOLOAZ**

**HAUTATU PREBENTZIOA**

**HAUTATU BABESA**



**CC00**



<https://sanidad.ccoo.es/euskadi>